



220

ALEA

arabako aldizkaria



GAZTAINA
ERREAK

GAZTAINAK
NEGU USAINA
DUEN ELIKAGAIA

Izan zaitez ALEAkide
www.alea.eus/harpidetzak



UDAL APARKALEKUAK



**Ez eman
buelta gehiago
APARKA EZAZU
erdialdean,
azkar eta merke**

2.000
leku
baino gehiago

Artium



Santa Bárbara



Manuel Iradier





ALEA 220

2019-12-20 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA: PHOT.OK

Bultzatzaileak



berria goiena“

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 3.500 ale

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea.

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Blanca Urgell, Emaiz, Arabako Bertsotale Elkarte.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Gaztainaren kultura Araban.
- 10 **Protagonista.** Izaskun Arriaran, Aita Mari ontziko erizain boluntarioa.
- 12 **Iritzia.** Blanca Urgell, 'Protesien aroa'.
- 14 **Sarean.** #DeMiguelAuzia.
- 14 **Irudia.** Artziniegako Museoaren jostailuen erakusketa.
- 16 **Gizartea.** Irtenbide bat aurkitu nahi du Oiongo San Bizente ikastolak.
- 18 **Gizartea.** 'De Miguel' auziaren epaia eman dute.
- 19 **Gizartea.** Herri Txikien asanblada gorpuzten ari da.
- 20 **Datuak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Mazoka inauguratuko dute ostiralean.
- 24 **Gizartea.** Gasteizko Eguberrietako haur parkea Hegoaldean izango da.
- 25 **Kultura.** Gasteizko Jazz Uhinak Ricard Miralles pianista omenduko du.

Mezua harpidedunentzat

Opor egunak direla eta, datozen asteetan ez da aldizkaririk argitaratuko. Hurrengo zenbakia urtarilaren 10ean izango duzue esku artean. Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu eta laster arte!!

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gosea apaltzetik neguko jaiak apaintzera

Neguko jaietako protagonistetako bat dira gaztainak. Gasteizen bertan zein Arabako herri gehienetan ardo beroarekin eta erreak hartzen eta banatzen dira. Gabonetako osagarri soil bat da egun; duela berrogeita hamar urte ezinbesteko produktua izan zen eta baserrietan bizitza asko salbatu zituen fruituak.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**



Neguari gaztaina erreak janaz egiten zaio ongietorria Euskal Herrian eta Europako beste lurralde askotan. Arabako hiriburuko kaleetan gaztaina-saltzaileak daude egun hauetan, eta Gabonetako festa eta ekitaldi ugarietan gaztain-erreak banatzen dituzte ardo beroarekin. *Hator, hator* gabon-kanta ezagunak ere gaztaina aipatzen du. Ohiturek sustrai sakonak dituzte; izan ere, "txiroen ogia" izan da gaztaina mende luzez eta fruitu lehorren artean erregina.

Gabonetako postreetan protagonistetako bat izan da, sagarrekin eta intxaurrekin batera; eta urtean bost edo sei hilabetez gaztainak afaltzen zituzten baserri eta herri askotan. "Jasota dago, egunero, gutxienez, hamazortzi gaztaina jan behar zituztela baserritarrek taxuz lan egin ahal izateko", azaldu du Iñaki Garcia Uribe Aranzadiko Etnografia saileko kideak.

Beraz, oinarritzko elikagaia zen gaztaina landa eremuan eta denetariko jakiak prestatu dira baserrietan fruitua baliatuta: esne beroarekin afaltzen zituzten ia gauero, egosiak gatz apur batekin, entsaladan, zopan, erreak, eta ogia egiteko irina ere egiten zuten fruituarekin. "Gaubeako Espejo herriko laurogeita hamar urtetik gorako gizon batek kontatu zigun amak kafea ere egiten zuela gaztainekin, *aguatxirri* esaten zioten edabeari".

Oinarritzkoa ez ezik, bizirauteko ezinbesteko jakia izan da gaztaina. "Mendatako (Bizkaia) Udalean gordetako XVII. mendeko agiri batean jasotzen da herriko haurren erdiak gosez hilko zirela



gaztainengatik izan ez balitz". Gaztainaren handitasuna ukaezina dela nabarmendu du Garcia Uribek, eta fruituak omenaldi bat merezi duela. "Orain dela berrogeita hamar urte Euskal Herriko landa eremua arras pobrea zen, eta gaztainak salbatu zituen".

Kirikino-hesien lurraldea

Orozkoarra izanik, gaztainaren kulturarekin harreman berezia du Garcia Uribek. Izan ere, gaztainaren inguruko tradizioa oso zabalduta dago bere herrian, eta baita Laudion eta Aiaran ere. Euskal Herrian 110 bat kirikino-hesi –gaztainak morkotsen barruan biltzen zituzten harrizko eraikuntzak– daude katalogatuta, eta horien erdiak Orozkon daude.

Harrizko eraikuntza biribil horietan sartzen zituzten gaztainak animaliengandik babesteko; aire zabalean egun batzuk pasatu eta gero, morkotsa galtzen zuten eta etxeko ganbarara eramaten zituzten. Gutxienez, hurrengo urteko Aste Santura arte

Egun hauetan gaztaina erreak eros daitezke Gasteizko hiri erdian. PHOT.OK



ALEAKO IRAKURLE GUZTIEI,
EUSKARA BETE URTE ON!!

www.amurrio.eus





Iñaki Garcia Uribe Orozkoko Kerazaluxen dagoen kirikino-hesian. JAVI CASTRO

"BASERRIETAN HOZKAILUA ENTXUFATU ZUTENEAN HIL ZEN GAZTAINA"

IÑAKI GARCIA URIBE

kontserbatzen ziren ondo. "Baranbioko baserri batean jasota dago Domu Santuan jasotako gaztainak hurrengo urteko ekainera arte ondo kontserbatzen zituztela", esan du orozkorarrak. Gaztainen kultura handia duten Mendialdeko hainbat herritan ere esaten dute martxora edo apirilera arte ondo kontserbatzen zirela: "Gaztainak kontserbatzeko morkotsik gabe sartu behar dira buztinezko ontzi batean eta gainean urez betetako plater bat jarri; modu horretan ondo gordetzen dira martxora arte".

Esportazioa

Orozkon gaztainondo asko zeuden, beste hainbat tokitan zeuden bezala, baina bertan

esportaziorako erabili zuten gaztaina, bazelako pertsona bat interesatua horretan. Pertsona hori Manuel Goikoetxea komisionista audioarra zen. Bilboko zinegotzia zen, eta ontzidi bat zuen Anberesko (Belgika) enpresari batekin –Pedro Goossensekin–, eta haren bidez esportatzen zituzten gaztainak. "Hortik, Orozkon eta Laudion ere hainbeste kirikino-hesi egotearen arrazoia: negozio bat bazelako. Ekonomia bat zegoen", azaldu du Garcia Uribek.

Hala ere, XIX. mende bukaeran hasi zen gaztainaren gainbehera. Faktore nagusien artean daude herritik hirietara jazotako migrazioa, lursailen-kontzentrazioa, eta patataren eta zerealaren hedapena. Gainera, tintaren gaixotasunagatik Euskal Herriko gaztainadi gehienak galdu ziren. "1899. urtean, New Yorketik Donibane Lohitzunera etorri zen itsasontzi batek tintaren gaitza zuten gaztainondoak ekarri zituen, –azaldu du Garcia Uribek– eta birusa hedatu zen; Espainiako gaztanadien %95 desagertu zen horrela".

Alta, gaztainaren behin betiko heriotza XX. mendeko 50. hamarkadan geratu zen, Garcia de Uriberen arabera. "Baserrietan hozkailua entxufatu zuten egunean hil zen gaztaina", hain zuzen oinarritzko jakia izateari utzi zionean. ■■■





Marrón glacé



Osagaiak

- Gaztainak: 40.
- Azukrea 200 g.
- Ura 200 ml.
- Kanela adarra.
- Limoi-azala.

Zailtasuna: ertaina.
Denbora: ordubete.
Egoketa: ordubete.
48 orduko atsedena.

Urgora jatetxea

- **Helbidea:** Real kalea, 20. Torre (Trebiñu).
- **Telefonoak:** 945-40 31 60; 639 126 672.
- **Email:** urgorestante@gmail.com.

Prestaketa

1. Gaztainak egosi behar ditugu, erraz zuritu ahal izateko. Horretarako, pazientziarekin, zulo bat egingo dugu bakoitzaren oskolaren erdian, eta uretan egosiko ditugu hamar minutuz. Gero, hoztu aurretik, zurituko ditugu, azala kendu, barruko azala ere kendu, ur hotzetan garbitu eta gorde egingo ditugu.
2. Garrantzitsua da osorik geratzen diren gaztainak bakarrik erabiltzea. Egostean edo zuritzean hausten direnak gaztainakrema prestatzeko edo beste errezeta batzuetan erabiliko ditugu.
3. Bestalde, almibar bat egingo dugu, azukrearen eta uraren kantitate bera ontzi batean disolbatuz, eta irakitera eramanez; limoi-azala eta kanela gehituko ditugu, eta minutu batzuk loditzen utziko dugu. Egiten den bitartean, gaztaina zurituak egosiko ditugu, 20 minutuz, ur hotzetik abiatuta. Urak ez du bor-bor egin behar, gaztainak hautsi ez daitezen; eta ez dira gehiegi egosi behar pure bat bihur ez daitezen.
4. Almibarra eginda dagoenean, gaztainak barruan sartu eta hamar minutuz egosiko ditugu, zaporea har dezaten. Sua itzali eta gaztainak barruan hozten utziko ditugu, 24 orduz. Hurrengo egunean, lanak errepikatuko ditugu, 5 minutuz egosiko dugu eta siropean beste 24 orduz utziko dugu. Hurrengo egunean lanak errepikatuko ditugu, eta gaztaina melatuak izango ditugu.
5. Ohiko glasatua egiteko gaztainak aterako ditugu, eta almibarra urrituko dugu likidoa ia geratzen ez den arte, azukrea kristalizatzen hasiko den unera arte hain zuzen.
6. Orduan, gaztainak barrura sartu eta bainatu egingo ditugu, eta ondoren, sareta batean xukatu eta lehortzen utziko ditugu.
7. Momentuan jango baditugu, magdalena txikietako kapsuletan jarriko ditugu. Oparitu nahi baditugu, aluminiozko paperezko laukitxoetan bilduko ditugu.

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus

"Migratzaileen kanpamentuetako egoera salatzekoa da"

IZASKUN ARRIARAN AITA MARI ERRESKATE ONTZIKO ERIZAIN BOLUNTARIOA

Espainiako gobernuak eman beharreko baimenarekin arazoak izan ostean, urriaren amaieran abiatu zen Aita Mari erreskate ontzia Mediterraneo aldera. Euskal Herrira itzultia, hilabete horretan kanpamentuan zein itsasoan bizitakoaren eta migratzaileen egoera jasangaitzaren berri eman du Izaskun Arriaran aramaioarrak. Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri**.

tsas Salbamendu Humanitarioa gobernuz kanpoko erakundeko kidea da Izaskun Arriaran (Aramaio, 1977). 2017an erakundeak argitaratutako iragarki batean migratzaileen kanpamentuetarako sanitarioak behar zituztela ikusi, eta horietako batean hilabeteko misio bat egitera animatu zen. Ordutik gaur arte. Kioseko kanpamenduko proiektuaren koordinatzaileak azken misioan bizi izandakoa eta itsasoan zein kanpamentuetako errealitatea azaldu du.

Noiz itzuli zineten etxera?

Abenduaren 9ko goizean itsasontzia Grezian porturatu genuen, eta astelehenean bertan eta abenduaren 10a bitartean itzuli ginen guztiak etxera. Aita Mari itsasontziak hamabost lagunentzako tokia du: kapitaina; ofizial, kazetari

eta marinel bina; erreskate lanekoak; eta sukaldari, mediku eta erizain bana.

Esperientzia gogorra han bizitakoa, ezta?

Oso gogorra. Azken bidaiak bi zati izan ditu. Lehenengoak laguntza humanitarioa eramateko helburua zuen. Zazpi bat tona eraman genituen, bereziki, neguko arropa, zapatila eta material sanitarioarekin. Materiala eramateaz gain, bi kanpamentu bisitatu genituen, Lesbosen eta Kiosen. Lehenengoan 2015etik daramagu lanean, baina bisita honetan ikusitakoa oso gogorra izan da. Egun, 6.000 lagunetik gora bizi dira han, berez 1.000 lagunentzako tokia badu ere. Bizi baldintzak oso gogorak dira: 15 komun baino ez dituzte, zaborra edonon dago eta egunean behin ematen dieten janaria oso kalitate txarrekoa da. Bertan



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ



egon ginenean, arratsaldero kontsulta bat pasatzen genuen, eta horrenbeste jende etortzen zen oso zaila zela egoera kudeatzea; psikologiko oso txarto daude, krisi eta antsietate asko daude eta ez da erraza.

Bidaiares bigarren zatian itsasoratu zineten. Erreskate lanak egiteko Espainiako Gobernuaren baimen gabe atera zinetela esan da...

Argi utzi behar dugu ez ginela baimen barik atera. Itsasoratzen zaren bakoitzean *Despatxu* izeneko baimen bat eskatu behar da; hau da, helburua edozein izanda ere, beti eskatu behar duzun baimen bat da. Espainiako Gobernuari baimen hori eskatu genion Greziara laguntza humanitarioa eramateko, eta eskatutakoa bete genuen: Siziliara inongo geldiune barik joan ginen, eta handik zuzen Greziaraino laguntza uztera. Eremua ere mantendu dugu, bai Maltako eta baita Italiako uretan ere. Hortaz, Espainiak ez du ezer esaterik hitzartutakoa bete genuelako; zentzu horretan, lasai gaude. Bestetik, Espainiako Gobernuak akordio bat eskatzen zigun itsasoan erreskatatutako pertsonak porturatzeke; baina, hori Greziari eskatu behar genion han geundelako. Horren harira, duela gutxi Europako hainbat

herrialdek akordio bat sinatu zuten, eta Espainia kanpo geratu zen. Guk egindako erreskatearen harira, Eusko Jaurlaritzatik eta Euskal Herritik egin den presioak asko lagundu digu, eta ondorioz, Espainiak ere akordio hori sinatzea lortu izan da. Aurrerantzean, horrek asko erraztuko du guztia.

Zuen misiora itzuliz, behin itsasoan, asko kostatu zitzaizuen migratzaileak topatzea?

Bai, egunak eman genituen. Muga bat geneukan, nazioarteko uretan sartzen baldin baginen arazoak izango genituela esaten ziguten, Malta eta Italiaren koordinazio gabe geratuko ginelako. Astebete inguru eman genuen Tripoli (Libia) parean aurrera eta atzera, muga hori pasatu ezinik, jakinda bestaldean ontziak zeudela oso itsaso txarrarekin. Handik pare bat egunera abisua jaso genuen Libiatik ateratako bospasei ontzietara heltzeko aukera izango genuela; hiru egun eman genituen bila, itsaso zakarrarekin. Topatzeko esperantzarik ez genuenean, ontzi baten bila joateko abisua heldu zitzaigun, eta hara gindoazela, beste ontzi bat ikusi genuen, 79 lagunekin. Erreskatatu eta bigarren ontziaren bila joan ginen, baina libiarrak mehatxuka agertu ziren. Ihes egin behar izan genuen korrika, ontzia

han utzita. Handik gutxira, 83 lagunekin noraezean zebilen beste ontzi baten berri izan genuen; orduak eman genituen bilatzen baina ezer ez, eta hiltzat eman genituen. Beste ontzien berri ere jaso bagenuen, ezin izan genuen ezer egin.

Gogorra.

Oso. Horregatik, alde batetik, pozik itzuli ginen 79 pertsona ekarri genituelako; baina, bestetik, etsipenez, bi egunetan gu geunden tokitik oso gertu ehun lagunetik gora hil zirela ikusi dugulako eta beste askorekin zer gertatu den ez dakigulako. Dirutza gastatzen dute segurtasun neurrietan; gu, adibidez, hegazkinekin eta dronekin zelatatuak izan gara. Horrelakoetan errekurtso asko gastatzen dituzten bitartean, jendea hiltzen dabil. Horrekin lotuta, badakigu ontzi askotan ura eta ogi koskor siku bat ematen dietela, eta argi batzuk jarraitzeko esanda, itsasoan noraezean uzten dituztela, eta erregea amaitzen denean han geratzen direla.

Zuek erreskatatutako migratzaileak porturatu aurretik, bost egun pasa ziren. Nola gogoratzen dituzu?

Oso egoera ezberdinak bizi genituen. Hasieran, oso pozik heldu ziren; gero, bi gau oso txarrak pasa genituen, itsasoa beldurgarri zegoen, eta jendea bustita eta izoztuta zegoen. Gure eskuetatik ihes egin zuen orduan egoerak. Bestalde, beraien herrialdeetan bizi dutena ezagutzea eta aurpegian duten tristura izugarria da; guztiek diote nahiago dutela hil Libiara itzultzea baino; kanpamentuetako klinikan ikusitako denek tratatu txarrak, labankadak eta tiroketak jaso dituzte, eta emakume guztiak eta gizon asko bortxatuta daude. Gainera, European espero zaiena ona dela uste dute, eta hori ez da horrela.

Honen aurrean, zer eskatzen diezue gobernuari?

Izugarrizko lana dute aurretik. Europa mailan konpondu behar da gaia, bestela ez dago ezer egiterik. Migratzaileen herrialdeetan ere euren bizi baldintzak hobetu beharko lirateke; eta Libiako infernua konpondu behar da, ez delako normala jendea horrela tratatzea.

Gizarteak ere izango du zereginik.

Noski. Txipa guztiz aldatu behar dugu; guk geuk kritika asko jaso ditugu migratzaileak ekarri ditugulako. Auzia landu egin behar da, umeetatik hasita. Begiak zabaldu behar ditugu; ulertu behar dugu bere herrialdeetan ezin dutela jarraitu mila arrazoiengatik, pertsonak direla eta etsaitzat hartu beharrean aukerak eskaini behar dizkiegula modu duinean bizi ahal izateko.

Komunikabideek ondo jorratzen dute gaia?

Ezin ukatu izugarrizko babesak jaso dugula, baina itsasoko erreskate lanak hartu ditugu ardatz eta kanpamentuetako egoera ahaztu dugu. Bertan gertatzen dena salatu beharra dago; negua heldu da, ez dugu aurrera biderik ikusten eta oso arduratuta gaude.

Gabonen ostean osterak ere hara joateko asmoa duzue, ezta?

Bai, urtarrilaren bukaeran. Plangintza da hilabete bat itsasoan eta beste bat etxean ematea. Lehenengo misioa apur bat luzatu denez, bigarrena zertxobait atzeratuko da. Hala ere, kanpamentuekin kontaktuan jarraitzen dugu. Aita Mari Grezian dago mantenu lanetan; horren antolaketaren arabera, ikusiko dugu zer egin baina bestela kanpamentuetara joateko asmoa daukat; ez dut pentsatu nahi zelan egongo diren. ■■■



GABONETAN OPARITU

artepan



PANETTONE
PANETTONEA



TURRÓN TRUFA DE COCO
— KOKO-TRUFAZKO TURROIA —



LICORERAS
— LIKORE-ONTZIAK —



TURRÓN YEMA
— GORRINGO TURROIA —



MANTECADO DE ALMENDRA
— ALMENDRAZKO MANTEKATUA —



TURRÓN VASCO
— EUSKAL TURROIA —



TRUFAS
— TRUFAK —

Protesien aroa



BLANCA URGELL

FILOLOGOA

Lehengo egunean *Álava Medieval / Erdi Aroko Araba* proiektu bikainaren hitzaldi batean geundelarik, kodex irudiztatuen irudiak ikuskatzen, lagun batek esanda: "Protesien aroan bizi gara gu". Han geunden gehientsuenon presbiziagatik ari zen. Euskaltzaindiaren hiztegiak dio gure begietako kristalinoak malgutasuna galdu duela: betaurrekoak jantzi edota ikustekoa begietara hurbildu: tira, moldatzen gara.

Egunotan aro horretan bizi garenon beste protesi hedatuenaren gaitzak pairatzen ari naiz (onak gero dastatuko omen), alegia, Axularren hitzekin esanik, hortz-haginetan oinaze bortitza. Ostegunean inplante bi, ostirala hola-hala igaro eta asteburuan analgesikoak aldizkatzen, astelehenean amorratuta nengoen. Goiza aurrerago eta mina handiago. Diotenez, apoaren sabela mina dagoen aldean ferekatuz mina badoa. Antzinako sinestea, oinarri zientifikoa omen daukana, apoaren sabelari darion substantzia basokonstriktzioa eragiteko gauza baita. Eta hodiak uzurtzen direnean, mina badoa. Honatx erremedio erraz eta merkea!

Azkenean, zirujauaren laguntzaz –auzoan bizi den apoa baino prestago aurkitu nuen– mina joan bada ere, noraezean etorkizuneko protesiez pentsatzen jarri nintzen, malenkonía pitin batez. Pentsamendu horretan sartuta, ohartu naiz aldaka edota belauna(k) protesiaz dauzkaten inguruko lagunak hamaikatxo direla, batez ere –hona hemen kontsolagarria– amaren adinekoen artean. Eta horiek Osakidetza ordaintzen dituela.

Ereduzko Prosa Gaur-en sartu naiz aztarrika eta, aie!, han ez dut "Prentsa" atalean aldaka protesirik aurkitu, 2004ko adibide bakarrean baizik, eta "Liburuak" atalean protesi guztiak fonetikoak ziren, hizkuntzalaritzaren esparrukoak. Egunkari-aldizkarietako adibide gehienak –ze inozoa zaren, Blanca– bularrekoak ziren; oster, baziren begikoak, burmuinekoak (lehen saioa omen), zakilekoak, gorrentzakoak eta are behin ezker eskuko hatzarena ere.

Lagintxo horren ondorioa begien bistan dago: Osakidetza gure jendearen onetan egiten duen lana ez dago islaturik, ez daude hamaika aldaka eta hamaika belaun protesi horiek inon. Berandu dabiltzala? Egia. Baliabideak gero eta gutxiago daudela? Egia baita ere. Salatu egin behar dugula? Bai horixe. Eskubideak nola lortu diren badakigu eta protestatu arren nola galduz doazen ere bai. Baina protestaren gizartea izan beharrean soilik, pentsatu dut esker onekoen gizartea ere izan gaitezkeela. Ondo egindako lanari eta horren atzean dauden langile arduratsuei hainbeste zor diegula. ■

**LAGINAREN ONDORIOA:
OSAKIDETZAK GURE
JENDEAREN ONETAN
EGITEN DUEN LANA EZ
DAGO ISLATURIK**

internet begiratzea farmakoak presa! ERRETZEA
 mugikorra edateak
 musika loa alkohola
 mezu@k abiadura GPS jolastea
 whatsapp JATEA nekea drogak

Gidatzean, distrakzioak oso ondorio txarrak ekar ditzake.

GIDATU BESTERIK EZ



SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#DeMiguelAuzia

Euskal Herrian epaitu den ustelkeria kasurik handienetako baten epaia eman dute asteartean. Alfredo de Migueli hamahiru urte eta hiru hilabeteko zigorra ezarri diote, baina bederatzi urte egingo ditu gehienez preso. Auziak eta zigorrak berak erreakzioen soka luzea ekarri du, hamaika iritzi eta analisi politiko gurutzatu ziren hurrengo egunetan eta sare sozialetan ere oihartzun handia izan du epaiak. ■



TXIPIOKUE
@autogestia

Gaurko egunean asko zor diogu #DeMiguel auziaren salatzaileak, Ainhoa Alberdik, izan zuen ausardiari; baita gaia sakonki landu duten kazetariei, Iker Rioja eta Ahoztar Zelaieta.



BEÑAT LEUNDA
@BLEunda

#DeMiguel kasuak erakusten duen bakarra da Arabako PNVk beste probintziekin alderatuta diferentzia handia duela. Arabakoak harrapatu dituzte, beste guztiak ez. #pnvstyle.



UNAI APAOLAZA
@unaiapaolaza

Estatu espainiarrak berezkoa du ustelkeria ahalbidetzen duen markoa. Independentismoaren galderak, ea Estatuan ustelkeria nola konpondu beharrean, ea Estatu espainiarrean hau konpondu daitekeen izan beharko luke. Bi galdera, bi bide.



ANDER USABIAGA
@AnderGurusa

Zer nahi duzu esatea... Urkulluk lehendakari kargua PNV zuritzeko erabiltzea nahiko lotsagarria dela iruditzen zait... #DeMiguel



LEZIAGAKO SORGINA
@LSorgina

Zenbat "gezur" entzungo ditugu gaur Andoni Ortuzar eta Iñigo Urkulluren ahotik? Noizko kasu honen inguruko erreportai sakon eta serio bat EITB? #CasoDeMiguel #DeMiguelAuzia





Jostailuen artean Artziniegan

Artziniegako Museo Etnografikoan jostailuen erakusketa zabalik dago martxoaren 1era arte. 300 objektu baino gehiago ikusteko aukera dago: panpinak, letoizko hegazkinak, mahai-jokoak... Miguel Martin Zurimendi eta Alvaro Iturraspe herriko bildumazaleen eskutik eta Artea elkartearen kolaborazioari esker, Denia, Onil, Ibi eta beste herri batzuetan egiten zituzten jostailu ospetsuak bildu dituzte. "Nork ez du gogoratzen Payá markako "citroen-marrazoa", Rosaura panpina, Mekanoa, Cine-Exin, Scalextric eta beste hainbeste jostailu? Baita puxtarriak, tortolosak..., eta jakina, Erregeen opari handiena: Abelux bizikleta?". **Argazkia: Artziniegako Museoa.** ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**

	BAKARRIZKETAK	ekoizpenak	
	ANTZEZLANAK	management	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	



Arabako Errioxako ikastolen eta Ikastolen Elkarteen agerraldia. IKASTOLEN ELKARTEA

Irtenbide bat aurkitu nahi dute

Oiongo San Bizente ikastola segregazioaren eztabaidaren erdian jarri duen "kanpainaren aurrean", Ikastolen Elkartea atzeritar jatorriko ikasleen desorekari irtenbide bat emateko prest agertu da.

MIKEL BURUAGA OION

"Oionen sua piztu dute, ikastolaren aurkako kanpaina abiatu dute, ez omen ditugulako atzeritar jatorriko ikasleak hartzen", azaldu du Ikastolen Elkartek iragan astean egindako agerraldian. "Kanpaina horren probokazioan ez gara eroriko", nabarmendu dute.

Arabako Errioxako ikastoletako eta Ikastolen Elkarteko ordezkariak eskualdeko egoerari irtenbi-

dea emateko, Assa (Lapuebla de Labarca), Bastida (Bastida) eta San Bizente (Oion) tokiko ikastolen egoeraren "argazki osoa" eskaintzea eta plan zehatzak eta integralak adostea ezinbestekoa dela azaldu dute.

"Desoreka handia"

Atzeritar jatorriko ikasleak matrikulatzeko orduan "desoreka handia" dagoela onartzen dute ikastolen ordezkariak, baina argi

utzi nahi dute: "Erantzularen bat izendatu behar bada, ez gaitzaitela gu seinialatu".

Arazoa Arabako Eskolatze Batzordeak ikasle hauek eskolatze-ko dituen "irizpide okerre" eragin dutela diote. Izan ere, ikasle hauen gehiengoa matrikulazio epetik kanpo iristen da Euskal Herrira, eta haien familiek ez dute erabakitzen non matrikulatu.

Ikastolen Elkarteen arabera, Arabako Eskolatze Batzordeak "oso era desorekatuan" egiten du banaketa hori eta ikasle asko A eta B eredueta bideratzen ditu. "Leporatu izan digute ikasgelak topera betetzen ditugula matrikulazio garaitik kanpo etorritakoei ateak ixteko". Bitartean, Arabako Errioxako ikastoletan leku libre ugari gelditzen direla azaldu dute: 53 San Bizente ikastolan, 74 Bastida ikastolan eta 168 Assa ikastolan.

"Prest gaude, nahi eta behar ditugu", ziurtatu du Ikastolen

Elkarteak. Gainera, etxeko lanak egin dituztela ere azaldu dute: harrera planak eguneratu dituzte eta beka sistemak gaurkotu eta hedatu dituzte.

"Norberak etxeko lanak egitearekin ez da aski, eta behar dira guztion artean plan zehatzak eta integralak adostea". Norabide horretan, proposamen zehatzak egin ditu Ikastolen Elkartek arazoari irtenbidea emateko helburuarekin.

Lehenik eta behin, eskolatan batzordeetan hezkuntzako eragile guztiek parte hartzea bermatzea eta egungo irizpideak aldatzea proposatzen dute ikastolek.

Horrez gain, eremu berdinetan dauden ikastetxeen arteko "oreka eta baliabide berezien politika" ezartzea nahi dute, herritar guztien aukera berdintasuna eta ikastetxea hautatzeko eskubidea bermatzea erekin batera.

Gainera, hizkuntza ereduak desagertzea eta ikastetxe guztietan murgiltze ereduaren ezartzea ezinbestekotzat jo dute ikastolek, "atzerritar jatorriko ikasleak euskaratik eta euskaraz integratzeko".

Azkenik, Ikastolen Elkartearen ustez, segregazioaren arazoa ez da bakarrik hezkuntzarena. Hor-taz, udalen parte-hartzea beharrezkoa dela azpimarratu dute, herri eta eskualde mailako harre-ra plan integralak zehazteko.

Euskarazko eredu integrala

Arabako Errioxan ikasleak euskarazko eredu integralean eskolatzen dituzten "ikastetxe bakarrak" ikastolak direla ziurtatu du Ikastolen Elkartek.

Eskaintza publikoa "ia sinbolikoa" dela diote. D ereduaren monopolioa aldarrikatzetik urrun, sare guztietan hizkuntza ereduak kendu eta murgiltze ereduaren ezartzea babestu dute.



Lizarralde soinu TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
 945 22 69 77
 GASTEIZ

impresion arte
 Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
 Tanpografia
 Inprimatze digitala
 Enpresa opariak

**Gabonetako eskaintza bereziak,
 enpresa oparietan eta
 publizitate euskarrietan**



Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
 Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

**E
D
E
N**

GOSARIAK, KAFETEGIA, PINTXOAK...

Astelehenetik ostiralera
 7:30 - 21:30

Larunbatak
 8:00 - 15:00



945 45 09 06
 Panama kalea 18
 PILAR auzoa
 GASTEIZ



2018ko urtarrilaren 8an hasi zen 'De Miguel' auziko epaiketa. ALEA

Bederatzi urteko espetxe zigorra

'De Miguel' auzian epaitutako 26 akusatuetatik 15 zigortu ditu Arabako Auzitegiak, eta beste 11 absolbitu. Alfredo de Miguelek jaso du zigor handiena: 13 urte. Gehienez 9 urte emango ditu espetxean.

MIKEL BURUAGA GASTEIZ

Asteartean Araban inoiz eginda-ko epaiketarik handienaren sententzia ezagutarazi du Arabako Auzitegiak, hamar urteko prozesuaren ostean. Akusatuak ez dira epaitegira joan; haien abokatuek eta kazetari ugari bertatik izan dute epaiaren berri.

Mila orrialde baino gehiago dituen ebazpen judizialak espetxe zigorrak banatu ditu Arabako EAJren zuzendaritzako hiru kide ohirentzat: Alfredo de Miguel, Koldo Otxandiano eta Aitor Telleria. Kataia Consulting komisio ilegalak kibratzeko sortu zutela frogatutzat eman du epaileak.

Alfredo de Miguel Arabako EAJ-ren agintari ohiari 13 urte eta 3 hilabeteko zigorra ezarri diote. Hala ere, gehienez bederatzi urte emango ditu kartzelan. Koldo Otxandiano -7 urte eta erdi- eta Aitor Telleria -6 urte eta erdi- ere zigortu dituzte.

Halaber, 'De Miguel' auziko akusatu nagusiarri leporatutako delitu gehienak ere frogatutzat eman dituzte: eroskeria, legez kontrako asoziazioa, zuritzea, bidegabe erabiltzea, eragin-trafikoa, dokumentuak faltsutzea edota prebrikazioa. Epaiak, ordea, ez du behartze delitua frogatutzat eman.

Isunak eta gaitasungabetzeak

Espetxe-zigorrei 200.000 euro baino gehiagoko isunak gehitu behar zaizkie. Baita lanbide eta kargu publikoak izateko gaitasungabetzeak ere.

Kataia Consulting enpresaren sorreran parte hartu zuten Ainhoa Bilbao, Araceli Bajok eta Iratxe Gaztelu-Urrutiak, hiru akusatu nagusien bikoteak. Lehenengoa -Alfredo de Miguelen bikotea- urtebete eta sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote; bigarrena -Aitor Telleriaren bikotea- absolbitu egin dute; eta azkenari -Koldo Otxandianoren bikotea- urtebete eta sei hilabeteko espetxe zigorra eta 178.420 euroko isuna ezarri dizkiote.

Behin epaia ezagututa, akusatuak Auzitegi Gorenera jotzeko aukera dute orain.

 EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | BILBO

www.emun.eus

Arabako herri txikien bozgorailu

Orain arte egindako lanaren berri eman dute Herri Txikiak Bat asanbladako kideek, eta datorren urterako asmoak ere azaldu dituzte. Hilabeteen behin herri desberdin batean egingo dute asanblada.

ERREDAKZIOA MARKIZ

Joan den uztailan jaio zen Herri Txikiak Bat ekimena, hainbat gazte arabarrek herri txikien bizitza suspertzea xede sortutako asanblada. Mugimendu horren ondorioz, urriaren 12an ospatu zuten lehen Herri Txikien eguna, Argantzonen. Egun hori egitasmoaren helburuak gizarteratzeko mugarri

izan zen, baina hilabete hauetan lanean jarraitu dute, larunbatean Markizen egindako prentsa agerraldi batean adierazi dutenez.

Mugimenduaren helburu nagusia bere horretan mantentzen da: herri txikien inguruan dauden "hutsune zein gabeziak" salatzea, eta "herri txikien ahotsa ordezkatzeari". Norabide horretan, hiru

lerro nagusi jorratu dituzte orain arte: herrien arteko saretzea, erantzun kolektiboak eman ahal izateko; herriak euskalduntzea, eta despopulazioari aurre egitea. Herri txikien egoerari buruzko diagnosia ere egin dute, zerbitzuak, komertzioa, aisialdia, egitura politikoa eta etxebizitza kontuan hartuta.

Arlo praktikoari begira, besteak beste, tokian tokiko merkataritza sustatzeko formulak bilatzeari ekin diote, lan-eskaintzak eta lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Datorren urtean izango duten antolaketa ere azaldu dute: hila-beteen behin asanblada egingo dute, eta asanblada bakoitza herri desberdin batean egingo dute. Modu berean, hitzordu bakoitzean arazo zehatz bat landuko dutela aurreratu dute.



BIZI LAN.eus

ARGITU ZURE ZALANTZAK KLIK BATEZ

Ezagutza da aldaketarako lehen pausoa

www.bizilan.eus

NORENTZAT?

Bizilan.eus webgunea, langileria osoari baliagarriak zaizkien informazioak ezagutarazteko sorturiko tresna da.

"Langile" hitza erabiltzen dugunean, lanean, langabezian, erretiratura edo ikasten dauden pertsonen inguruan hitz egiten ari gara, eta horregatik, Bizilan webguneak kolektibo hauen guztien egoerak hartzen ditu kontuan.

ZER AURKITUKO DUGU?

Langileen eskubideen inguruko informazio argia aurkituko duzu Bizilaren; ohiko zalantzak, kolektibo bakoitzaren eskubideak, informazio gehigarria...

EMAN PAUSOA ZURE ESKUBIDEEN ALDE!



ZENBAKITAN

80

Emakumeak

Genero indarkerian arreta psikologiko espezializatua ematen duen Hegoak foru zerbitzua eskaintzeko Aldundiak hainbat tokiko erakunderekin sinatuta duen lankidetzat hitzarmena bi urtez luzatuko dute. Modu horretan, Laudion, Amurrión, Arabako Lautadan eta Arabako Errioxan jarraituko dute ematen zerbitzu hori zuzenean. 2019an 80 emakume eta 5 adin txikiko hurbildu ziren lehen aldiz arreta hori beren udalerritara eta kuadrilletan zuzenean jasotzera.

61

Metroak

N-102 errepeidea zeharkatuz Zabalzana eta Armentia basoa lotzen dituen egurrezko pasabide berria jarri dute asteburuan. Jarri aurretik, lau zatitan banatuta zegoen egitura, eta, errepeidea mozteaz gain, hainbat garabi eta makinaria pisutsua erabili behar izan dituzte jartze lanetan. Gasteizko Udalak 342.000 euro bideratu ditu pasabidea eraikitzeko. Vitoria-Gasteiz Hobetuz izeneko programa parte-hartzailean oinarrituta prestatu dute azpiegitura berria.

10

Gorpuak

Aztarnategi arkeologiko berri bat aurkitu dute Villabuenan. Mahasti batetik gertu hutsik zegoen sarkofago baten alboan bigarren sarkofago bat aurkitu dute orain, eta bertan arakatzeko egon diren Aranzadi elkarteak adituek hamar lagunen hezurrak daudela kalkulatu dute. Momentuz ez da ezagutzen hilerriaren datazioa, giza hezurrak besterik ez daudelako, datazioa erraztuko duten beste objekturik gabe. Lehen begirada batean bederen, Erdi Arokoa izan daitekeela uste dute.



ESANAK



ARANTXA ABEZIA

ELKARREKIN ARABA-KO BOZERAMAILEA
Iturria: Radio Vitoria

"Gehiengo absolutua duen tokietan, Eusko Alderdi Jeltzalea ez dago negoziatzeko prest"



JESUS GARAI

SEAD-EN LAGUNEN ELKARTEKO KIDEA
Iturria: Hala Bedi

"Polisarioak aukera guztiak jarriko ditu mahai gainean; gerrara itzultzeko aukera ere"



ESTHER OBANOS

EUSKADIKO ZELIAKOEN ELKARTEA
Iturria: Noticias de Alava

"Gabon hauetan zeliakoek 200 inguru euro gehiago ordaindu beharko dute"

RIOJA

GOSARIAK, HAMAIKETAKOAK, EGUNEKO MENUA
ASKOTARIKO KAZOLATXOAK, BOKADILDOAK
TORTILAK, PINTXOAK, TXERRI BELARRIA...

Erreserbak: 945 257082
Goizeko Setatik zabalik

NUEVO | BERRIA
Jatetxea eta taberna
Busturbi kalea 8
GAMARRA NAGUSIA

www.sare.eus | @sare_herriarra

LARRIKI GAIXO DAUDEN PRESOK ETXERA!
>>ATERA BIDERA

PRESOK ETXERA!

Abenduak 21
ZABALLARA!

11:30 · Ruta Europa hoteletik (N-1, 341 km)
11:30 · Desde el hotel Ruta Europa (N-1, km 341)

...ta Urtañaren 11an denok Bilbora

SARE

"Gasteizen uste genuen baino marrazkilari gehiago dago"

MARTA DEHESA MAZOKAKO ARDURADUNA

ESTI LANAO

Mazoka Gasteizko marrazki eta ilustrazio azokak bere bosgarren edizioa ospatuko du hilaren 20tik 22ra. Marta Dehesa azokako arduraduna ALEA FM saioan izan da.

Bost urte bete dituzue. Erraz esaten da.

Bai, bai. Oraindik ez dugu sinesten bosgarren urtera heldu garela, eta nola iritsi garen.

Eta nola heldu zarete?

Lan ikaragarriarekin, eta gainera instant batean pasatu da. Aurtengoa antolatzen ari ginela, ez genuen ulertzen nola bat-batean bost edizio bete ditugun. Baina, tira, hemen gaude, eta dirudienez, Gasteizek ere itxaroten du gure marrazki azoka. Guretzat hori oso polita eta ona da, eta ilusio handiarekin prestatzen dugu egitarau guztia.

Nazioartera ere iritsi zarete; Argentinako edo Portugaleko artistak datoz. Nola heldu zarete publikoarengana?

Pixkanaka uste dut. Ahoz ahokoa ezinbestekoa izan da gure kasuan. Webgunean ere oso modu aktiboan mugitu gara.



Mazoka eta Naipes Fournierren urteurrenetarako, 'Mazoka baraja' ilustratu dute. MAZOKA

Nola ikusten duzu marrazkilarien egoera Araban?

Ilustratzaileen eta marrazkilarien mundua, eta, orokorrean, artean dihardutenen mundua, ez da erreza. Eta gainera gure lana ez da oso ezaguna. Horregatik erabaki genuen, hain zuzen ere, Mazoka antolatzea. Marrazkiak toki guztietan daude. Aulki bat egin baino lehen ere marraztu egin da. Mazokari esker, urtero gure inguruan, bai Gasteizen

eta bai Araba osoan ere, marrazkilaritzan dabilen norbait ezagutzen dugu. Oso gutxi ginela uste genuen, eta askoz gehiago gara. Baina ez da erraza honetaz bizitzea, noski. **Egitarauaren aldetik, zer antolatu duzue?**

Urtero berezitasun bat du azokak, eta aurtien jokoan inguruan joango da. Jolasek eta marrazkiek oso harreman inportantea dute gure bizitzan, txikiak garenetik. Beraz, besteak





Gasteiztik etorritako marrazkilariez gain, bestelako herrialdetakoak ere izango dira azokan; tartean, Argentina eta Portugal. MAZOKA

beste, tailerrak izango dira, bai txikientzat baita nagusiagoak direnentzat ere. Erakusketak ere izango ditugu, formatu oso ezberdinetako ilustrazioetan aritu diren artista izugarriak ezagutzeko. Ekitaldi ezberdinak izango dira Montehermoson, Goiuri Jauregian eta Bibat museoa.

Horien artean ilustramatoia. Zertan datza?

Barruan marrazkilari bat duen kartoizko tresna bat da; nahi izanez gero, aurrean jartzen zara, eta bi minututan zure erretratua izango duzu etxera eramateko prest. Beti ikusten dugu haurrek beste haur batzuk ikusten dituztela marrazten, eta guretzat garrantzitsua da ikustea helduek ere marrazten dutela. Horregatik antolatua

"EDONON DAUDE MARRAZKIAK; AULKI BAT ERE MARRAZKIA IZAN DA LEHENDIK"

MARTA DEHESA, MAZOKAKO ARDURADUNA

dugu ekintza hori. Eta adin guztientzako lekua izango da. **Zuek bost urte, eta Naipes Fournierrek 150. Batera ospatuko duzue, ezta?**

Hala da, bai. Mazokalari ohiak izandako lau emakume ilustratzailek Fournierren Mazoka baraja bat ilustratu dute. Elena Odriozola, Maite Gurrutxaga, Yolanda Mosquera eta Noemi Villamuza artistek

karta batzuen paloa marraztu dute, eta baraja horren formatu erraldoia ikusgai jarriko dugu Goiuri Jauregian.

Irudiez gain, musikari ere tokia egin diozue, Ali Ensemble orkestra txikiaren eskutik.

Sorpresa bat izan da guretzat. Gurekin harremanetan jarri ziren, eta oso ideia polita iruditu zitzaigun. Hemezortzi pertsonaz osatutako orkestra txiki bat da, eta kontzertu berezia eskainiko dute. Haien musika Julio Vernerren eleberrietako jatorrizko ilustrazioetan oinarrituta dago, eta musika jotzen duten bitartean ilustrazio horiek proiektatu dituzte. Artea eta musika nahastuko dituen ikuskizuna eskainiko digu Ali Ensemblek. ■■■



Tradizio batetik bestera bidaia

Gasteizko Eguberrietako haur parkeak kulturartekotasunaren aldeko apustua egin du aurten, hainbat kulturatako jolasekin; Hegoalde gizarte etxean izango da, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Munduko Eguberriak goiburu, hainbat kulturatako Gabonekin lotutako lantegiak, jolasak eta emanaldiak antolatu dituzte Gasteizko haur parkean.

"Bidaia zoragarria izango da tradizioetan barrena, ezagunenetatik hasita urrunenetara, umeak zein helduak liluratuko dituen", azaldu du Estibaliz Canto kultura zinegotziak. Hegoalde gizarte etxean paratuko dute jolas parkea, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte.

Berritasun handiena inaugurazio ekitaldia izango da aurten, zinegotziak azaldu moduan. Express Your Clown konpainiaren eskutik emango diote hasiera jaiari hilaren 26an, 11:00etan. Hegoalde barruko atrakzio eta jardueren artean, puzgarri handiak, *challenge pista*, oihan abentura pista eta *multicircus* trenea izango dira. Rokodromoa ere erabili ahal izango dute, eta kantxan agertokia jarriko dute animazioarekin. Erakusketa aretoan joken gunea jarriko dute: kabina simulagailuak,



Express Your Clown taldeko kideek inauguratuko dute Eguberrietako parkea. EYC

errealitate birtuala, *play station* jokoak eta lau *miniarcade* makina jarriko dituzte. Bestetik, igerilekuen txirrista handia, txalupak eta piraguak izango dira, eta hainbat gairi buruzko lantegiak ere antolatu dituzte: birziklatzea, Gabonetarako apaingarriak, sukaldaritza, kulturarteko dibertsitatea eta genero berdintasuna. Gizarte etxearen kanpoaldean ez da faltako tirolina handi bat, aerogiro bat, 3D simulagailu bat eta safari trenea txikientzat.

Gabonetako jolas parkearekin batera, hurrengo egunetan antzerkia ere izango dute etxeko txikienei. Jesus Ibañez de Matauco antzokian hainbat antzezlan eskainiko dituzte arratsaldeetan; gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Irrien Lagunek eskainiko duten *Irriak plazan* lanarekin ekingo dute, abenduaren 26an, eta urtarrilaren 4an izango da azkena, Express Your Clown taldearen *La vuelta al día en 80 mundos* lanarekin. ■■■

An advertisement for the 'Lehen Hitzak Balio Handia Du' campaign. It features a smiling woman and man on the left. In the center, there is a circular logo with the text 'LEHEN HITZAK BALIO HANDIA DU' and an arrow pointing to the right. To the right of the logo, the text reads 'Erraztu dezagun euskarazko kontsumoa' and 'Euskaraz kontsumituz, euskararen mapa osatuko dugu.' Further right, there is a QR code and the text '#LehenHitzaEUS Gehitu zaltzez mapara'. Below the QR code, there is a logo for 'bai euskarari' and social media icons for Facebook, Twitter, YouTube, and Instagram. At the bottom right, the text reads 'Ziurtagiri bat baino askoz gehiago'.

Jazza zabaltzeko xedez

Aurten, Ricard Miralles pianista omenduko du Gasteizko Jazz Uhinak Hirian Barrena programak; jazza modu didaktikoan erakutsi eta zabaltzeko helburuarekin jaio zen jaialdia duela hamalau urte.

ERREDAKZIOA

Aste honetan eman dio hasiera Gasteizen ospatzen den Jazz Uhinak Hirian Barrena jaialdiaren XIV. edizioak, Jose Vera Quartet taldearen eskutik. Aurten, baina, Ricard Miralles pianista emankorra izango da protagonista nagusia; jaialdiak omenaldia eskainiko dio ibilbide oparoagatik, besteak beste, Joan Manuel Serrat eta Alberto Cortez musikarien kolaboratzaile eta moldatzaile izan denari.

Jazzargia elkarteak antolatuta, Mirallesen Ohorezko Makila jasoko du Jesus Guridi musika kontserbatorioko areto nagusian 2020ko apirilera arte egitekoak diren kontzertu pedagogikoen zikloaren barruan.

Hurrengo kontzertua urtarrilaren 21ean izango da: Charles Cooper 'Chop' & Triology taldeak joko du. Otsailaren 25ean Gasteizko gitarra-jotzaile Adrian Fernandezek eta haren laukotearen txanda izango da.

Martxoaren 17an, Luis Aranburu eta Jesus Guridi eskoletako konboek joko dute, eta kontzertu horretan emango zaio Ohorezko Makila Ricard Mirallesi. Apirilaren 7an, berriz, musika ikasleek eta tokiko musikariek osatutako bi banda arituko dira: Guridi Big Band eta Big Band Berri.

Eta, azkenik, apirilaren 19an, Gonzalo del Val bateriaren hirukoteak eta Gregorio Solabarria ganbera orkestra gazteak parte hartuko dute arekin. ■



Zikloen boterea

SEXUALITATEA



EMAIZE

SEXOLOGIA ZENTROA

Emakumeon sexualitatearekin zerikusia duen guztiak kutsu negatiboa izan du historikoki eta ezkutatu beharrekoa izan da. Aurrerapauso handiak eman ditugu gure gorputza ezagutzen eta gure gozamina aldarrikatzen. Horren barruan azken urteetan emakumeon zikloen ezagutza oinarritutako mugimendua indartsu ari da pizten.

Hilerokoa gaixotasun gisa edota kutsakor bihurtzen gaituen ondoeza bezala hartua izan da maiz. Adinduak garenok mahonesa moztu, landareak zimeldu, ezin dutxatu eta txarribodan ezin genuela parte hartu entzun dugu, ezta? Horiek egin eta ez dela ezer gertatzen agerian utziz ideia oker hauek baztertu ditugu. Horrek ordea ez ditu gure zikloek ematen dizkiguten aukerak adierazi, eta horretarako gaur egun gure natura entzun eta ezagutzeko aukerak eskaintzen zaizkigu.

Gure zikloen artean, menopausiaren zikloa dugu, eta hilekoaz gauza on gutxi kontatu badizkigute, zer esanik ez menopausiaz. Menopausia hilekoaren desagertzea da, eta horren inguruan mezu gutxi eta ezkorrak jaso ditugu. Ugaltzeko gaitasuna galtzearekin batera, zahartzea, desio jaitsiera, bagina lehorra eta emozio desoreka omen dator. Ugalketa, gaztetasuna, erotikoki aktiboak, kitorako prest eta emozionalki



PIXABAY

orekatuak izan behar gara gutaz espero dena betetzeko, eta hau aldatzen doanean gure baliogabetzea datorrela uste da.

Perimenopausia 5-10 urteko aldaketa prozesua da. Sofokoak dira sintoma ezagunena, lehen

GURE BIZITZAKO BIGARREN AROA MODU OPAROAN BIZITZEKO BIDE BERRIAK IREKIKO DITUGU

aipatutako desio jaitsiera, bagina lehorra eta emozio desorekarekin batera. Emakume bakoitzak modu ezberdinean biziko ditu eta batzuentzako desatseginak izango dira, beste batzuk gutxi nabarituko dituzten bitartean, eta emakume horrek hobe sentitzeko laguntza nahiko balu, aukerak badira. Ziklo honetan kontatu ez dizkiguten gauza positiboak gertatzen dira baita ere; horietako bat emakumeok fokoa gudan jartzen dugula da. Biologikoki (eta kulturalki) besteen beharretara begira egoteko joera dugu, eta ugaltzeko gaitasuna desagertzearekin batera, fokoa besteengandik gugana biratzen dugu. Gure behar eta desioak neurri handiagoan hartzen ditugu aintzat, eta horrek gure harremanetan jokaera aldaketa dakar, muga argiagoak jarritz eta gu ondo sentitzeko behar ditugunak eskatuz.

Hortaz, gure bizitzako bigarren aroa modu oparoan bizitzeko bide berriak irekiko ditugu, baita erotikoki gozatzeko modu berriak bilatzeko ere. Menopausia ez da amaiera, hasiera berria baizik. ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

Bertso-glosa saioa

BERTSOLARITZA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Katalanek eta euskaldunek harreman berezia dutela aski jakina da. Antzeko egoera bizi dutenen herrien arteko gertutasun hau ohikoa da, eta are gehiago kantu inprobisatuaren tradizioa ere partekatzen denean, kataluniarren eta euskal herritarren artean gertatzen den bezala.

Gasteizko Sumendiola Bete Poto bertso-eskolak harreman estua egin du azken urte honetan Kataluniako Manlleu herriko glosa taldearekin, eta Manex Agirre Gorbeialdeko euskara teknikariaren bitartez, Zuiako Udalak bertsolaritza eta glosa uztartuko zituen saio bat antolatu zuen abenduko zubirako.

Saioaren helburua bi herriak ahalik eta gehien elkartzea zen, Zuiako gaztetxera hurbilduko zen entzuleari zubi honetan "benetan ospatzeko zerbait eskaini ahal izateko". Horretarako, katalanek gure doinuak ikasi zituzten eta alderantziz; eta ariketak ere denetarikoa izango ziren. Behin prestaketa lanak eginda, zailena falta zen, ordea: entzuleak erakartzea eta saio polita ateratzea.

Iritsi zen abenduak 6ko arratsaldea eta zazpiak jo baino lehen antolatzaile eta inprobisatzaileak azken xehetasunak ixten ari ziren Zuiako Gaztetxean. "Baina nola



Bertsolaritza eta glosa uztartu zituzten abenduaren 6an Zuian. XEVI VILAREGUT

zen doinu hau?", "Aldi bereko itzulpena egongo da pantaila batean?", "Mesedez, azken soinu proba!" (eskerrik asko Jonmi),...

Atzerapen arabarrarekin igo ziren protagonistak oholtzara: Arabatik Unai Anda (etxean jokatzeko), Izar Mendiguren eta Iñaki Viñaspre, eta Kataluniatik Nuria Casals (Herrialde Katalanetako egungo txapelduna), Carolina Font, Irene Marginedas, Alex Pujols, Ramon Terricabras eta Immaculada Tubau. Gaiak trebe ematen Ainhoa Aizpurua eta Naroa Hernandez aritu ziren, eta Quim Camprubi, berriz, doinu katalanetan musika jartzen.

Zuiako gazteen bertso-eskolak ongi-etorri bertso batzuk bota ondoren, kataluniar erara hasi ziren inprobisatzaileak kantuan: "Aurkeztu zuen burua eta esan, gaurkoa bezalako egun seinalatuan, zer maite duzuen Espainiatik", Beget doinuan.

Saioa urduri hasi arren, berehala erritmoa hartzen joan zen eta ia bi orduko saioaren ostean, gustura oholtzakoak eta are gusturago gaztetxea bete zuen publikoa ere. Gaua ez zen hor amaitu: trikitilariekin bertso-poteoa egin zen, dantza eta guzti, eta antolatzaile eta parte-hartzaileen afaria ordu txikiak arte luzatu zen, kantuz kantu "glozatzen". ■



Oihaneder Euskararen Etxea Kultur Otarra

Oihaneder Euskararen Etxearen kultur otarra zozkatuko du ALEAk. Parte hartu urtarilaren 7a baino lehen; urtarilaren 10eko ALEAn argitaratuko dugu irabazlearen izena.

Batera

kultur
proiektuak
elkarrekin

Gaztea eta gasteiztarra?
Zein kultur proiektu garatuko zenuke laguntza pixka bat izanez gero? Liburu bat argitaratu? Disko bat atera? Graffiti tailer bat antolatu? Jaialdi bat prestatu? Argazki erakusketa bat sortu?...

Euskaraz egin nahi baduzu, orain da zure aukera!
Crowdfunding ekimen bat martxan jartzen lagunduko dizugu, eta 2000 €-ko ekarpena egingo diogu zure proiektuari.

Proiektuak aurkezteko epea
Azaroaren 7tik urtarilaren 7ra

Zaila da bakarrik egindako lana, egin dezagun elkarrekin!
Proiektu Kulturalak • Gasteiz • Euskara • Gazteak • Crowdfunding • 2000€

Info +: www.itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

ANTOLATZILEA

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
ERABILERA KOTO ANTOKA

DIRUESLEK

LABORAL

LAGUNTZALEA

itsulapikoa

HEDABIDE LAGUNTZILEAK

ALEA

Diario

berria

radio vitoria



**ITURRIETA
SAGARDEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!




Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 - ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683



*Arabán,
arabako sagardoa!*

AGENDA

Abenduaren 13tik urtarilaren 10era

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Joseba Tapia

IKA euskaltegiaren eskutik.

Ostirala 20, 22:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

AMURRIO Eraso!

Eratu taldearekin batera.

Ostirala 20, 22:30ean, Burubio kultur aretoan.

ANTZERKIA

OKONDO 'Ze demontre'

Bakarrizketa eta inprobisazioa.

Igandea 22, 18:00etan, kultur etxean.

IKUS ENTZUN

ESPEJO 'Atakama bizikletaz'

Oskar Ezkerrok Atakaman zehar egindako bidaia kontatuko du.

Larunbata 21, 19:00etan, kultur zentroan.

HAURRAK

ARAIA 'Lur' antzerkia

Xake taldearen eskutik. 7 urtetik gorako haurrentzat.

Larunbata 21, 18:30ean, Andra Mari aretoan.

ARTZINIEGA Ipuina

'Din dan don, badator 2020'. Sorgina Txirulinarekin.

Astelehena 23, 12:00etan, udal liburutegian.



ETB

AMURRIO/ GASTEIZ 'Goazen 6.0'

Telebistako serie ezaguneko abentura eta gertakariak biltzen dituen musika ikuskizuna. Ramon Agirre, Asier Burgete, Paula Etxeberria, Aitana Etxeberria, Aritz Mendiola eta Markel Gajate aktoreekin. Glu Glu produkzioak konpainiaren eskutik. *Abenduaren 27an Amurrión, eta abenduaren 28an Gasteizen.*

GASTEIZ 'Etterik txikiena' antzerkia

Eva Azpilikueta aktorearekin. Haur errefuxiatuen inguruko lana.

Larunbata 28, 18:00etan, Arriaga gizarte etxean.

BESTELAKOAK

KANPEZU Gabonetako ekitaldia

Ioar dantza taldearen erakustaldia.

Larunbata 21, 18:30ean, herriko frontoian.

AGURAIN Musika banda

'Tiktara Banda-Ba-Da' ikuskizuna. Tiktara taldea eta Aguraingo musika banda.

Larunbata 21, 19:30ean, Harresi aretoan.

OZETA Poesia eta musika

'Poesiak ez du egarria kentzen, baina laguntzen du', Itziar Rekalde eta Miren Beitiarekin.

Igandea 22, 13:00etan, Garaion sorgingunean.



BOB POP



**IRANTZU
VARELA**



**AITZIBER
PZ. KARKARO**



**YOGURINHA
BOROVA**



**ABENDUAK
28**

**21:30ETAN
KUBIK ARETOAN**
GENERAL ÁLAVA 5. GASTEIZ

SARRERAK - ENTRADAS
2 EURO
WWW.KUBIKVITORIA.COM
HALA BEDI TABERNA
CANDELA



ZEURE

B
PLANA

**BASKE
PENSIO
NES**

BANAKAKO BGAE
Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailea,
Kutxabank
Gestión IKESK
SAU Ondare
Kudeatzailea.

% **3,50**

ERAINO *

**EKARRI
ZURE PLANA
BASKEPENSIONESERA
ETA HONEN
ZENBATEKOAREN
%3,50eraino*
EMANGO
DIZUGU**

Baskepensiones
Banakako BGAEren
Banakako Aurreikuspen
Plan hauetara
lekualdatutakoaren
%3,50a: Baskepensiones
15, Baskepensiones 30,
Baskepensiones 60 eta
Baskepensiones Burtza
Globala. Adibide honetan
eskatutako gutxienekoa
6.000 eurokoa da eta
bertan geratzeko
konpromisoa
5 urtekoa. Kutxabankek
gehienez 6.000 euroko
pizgarria ordainduko du
urtean behingo
ordainketen bitartez
Baskepensioneseko
planaren titularraren
kontu batean. Lehenengo
ordainketa lekualdaketa
jasotakoan egingo da.
Pizgarri honek unean
uneko indarreko zergak
izango ditu. Gaur egun,
atxikipenari lotutako
kapital higigarriaren
etekintzat jotzen da.

***UTB: %0,70**

Adibide honetan, 6.000
euroko lekualdaketa eta
%3,50eko pizgarria
egongo dira, urteko bost
ordainketatan, horietako
lehenengoa lekualdaketa
egiten den egun berean;
horrez gain, bezeroak 5
urteko epean ez aldatzeko
konpromisoa hartuko du.
Kanpainaren azken eguna:
2019/12/31.



kutxabank